

OSOGUNEKO ERAKASKERA

1998. 99. IKHASURTEA

① ELHEKETA : Aste huntuako Solas-gaiu

1. Batixtak nun aurkitu zuen Aragonesa?
2. Zer tenore zen?
3. Batixta beldur zuen.

② TORI DRAGO BAT

Auritzeko parrean hihat, heldu zen Batixta Garaztarra, orroaz mendieri:

Bas'oilarra kantuz...

Iratiko sorhoan...

Tratu bat ona eginik ferietan, moltsa luze berdea diruz betherik, *amini* bat alegera zen. Nafar arnoaren zinezko gozoa!... "Ai, ui, ui!..."

- Nik badakit, zaharragoek erranik,
- Arno onak ez duela parerik;
- Orai ere, berriz ere, balinbanu hartarik,
- Edan niro basoa betherik.

Laphurdi, Xubero eta Garaziko kantu mota guziak emanak zituen jadanik, noiz eta ere, iguzki aphalean, *Ibañetako* lephora heltzen baita, zintzurra larrutua, bainan gogoia bethi bero beroa. *Guardianoaren* ttattolan pint'erdia bat edan eta, *Luzaideko* alderat jaustera zoalarik, alimaleko mandozain muthur beltz bat ondoratzen zaiu, hura ere Frantziarat ari:

- Arratsalde on!
- Bai zuri ere.
- Frantziarat joaiten zare?
- Bai. Zu ere naski?
- Bai, eta lorietan joanen gare elgarrekin...

Eta holaxet heldu ziren biak, mando haundi bat gibeletik, zahagiz gain gaineraino kargatu mando bat. Batixtak hain nahiagoko zukeen, bere moltsarekin, bakar bakarrik sartu Frantzian, Donibane Garaziko karrikan, *Manjelainean*. Bere sudur luze mehe eta begi xorrotxeekin, ez zelarik bada gure Doniandarra beldurti beldurti hetarik, Aragoes demuntreak halako lazta bat emaiten zakon hala ere! Eta ihuna heldu, futxo, mendi handier beheara!

③ ADITZ IKHASKUNTZE

- 31. Badakit. 32. Balinbanu
- 33. Jaustera zoalarik. 34. Ondoratzen zaiu
- 36. Nahiagoko zukeen.

31. JAKIN Indic. Présent / Suppositif. Eventuel

Objet singulier

- Nik dakit = je le sais
- Hik dakik = tu le sais
- Zuk dakizu = vs le savez
- Harek daki = il le sait
- Guk dakigu = ns le savons
- Zuek dakizue = vs le savez
- Heiek dakite = ils le savent

Objet. sing.

- N. banaki = si je le savais
- Hi. bahaki = si tu le savais
- Z. bazinaki = si vs le saviez
- Ha. balaki = s'il le savait
- G. baginaki = si ns le savions
- Z. bazinakite = si vs le saviez
- He. balakite = s'ils le savaient

C.D.P. (Objet pluriel) infixe *z* aurretik: dakit, bazakite etc

32. UKAN. Suppositif. Eventuel. 1^{re} forme. Eventuelité à présent

CDS

- Nik banu = si je l'avais
- Hik banu = si tu l'avais
- Zuk bazinu =
- Harek balu =
- Guk baginu =
- Zuek bazinute =
- Heiek balute = s'ils l'avaient

CDE

- N. banitu = si je les avais
- Hi. bahitu = si tu les avais
- Z. bazinutu = si vs les aviez
- Ha. balitu = s'il les avait
- G. baginutu = si ns les avions
- Z. bazinutute = si vs les aviez
- He. balitute = s'ils les avaient

33 JOAN. Indic. Présent

- Ni noa = je vais
- Hi noa = tu vas
- Zu zoatzi = vs allez
- Hura dou =
- goatzi = etc
- Zuek zoazte =
- Heiek doatzi = etc

Imparfait

- N. nindoan = j'allais
- Hi hindoan =
- Z. zinoatzen =
- Hu zoan = etc
- G. ginoatzen =
- Z. zinoazten =
- He zoatzen = ils allaient

CONDITIONNEL

- N. nindoake = j'irais
- Hi hindoake = tu irais
- Z. zinoazke = vs iriez
- Hu loake =
- G. ginoazke = etc
- Z. zinoazkete =
- He loazke = ils iraient

POTENTIEL - Présent / Imparfait

- N. noake = je pourrais / nindoanen = je pourrais
- Hi hoake = tu pourrais / hindoanen = tu pourrais
- Z. zoazke = vs pourriez / zinoazhen = vs pourriez
- Hu doake = il pourrait / zoahen = il pourrait
- G. goazke =
- Z. zoazkete =
- He doazke = etc

EVENTUEL - SUPPOS.

- N. banindoa = si j'allais
- Hi bahindoa = si tu allais
- Z. bazinoatzi =
- Hu baloa =
- G. baginoatzi =
- Z. bazinoazte =
- He baloatzi = etc